



Código exp: 2005RBAR0005

Asunto: Ordenanza reguladora de los
procedimientos de contratación

**ARRASATEKO UDALAREN KONTRATAZIOKO ADMINISTRAZIO
PROZEDURAK ARAUTZEN DITUEN UDAL ORDENANTZA**

Noiz onartu den: 2005/11/3ko udalbatzarrean
Noiz argitaratu den: 2006/01/11 ko GAO, 7 zk.

HITZAURREA

Arrasateko Udalak erabaki du kontratazio egitekoak zentralizatzea, eta administrazio unitate bat sortu du horretarako, orain arte udal sail bakoitzak zuzenean egin duen zeregina antolatzeko, batera izateko, batetik, legeriari zor zaion errespetua eta, bestetik, administrazio kontratazioa egitean behar den eraginkortasuna.

Ildo horretan irizpide batzuk ezarri nahi ditu Arrasateko Udalak, kontratu guztiei buruzko prozedurak erregulartzeko, berdin dio zein adjudikazio era edo prozedura den. Horrela, edozein kontratu motak du lekua ordenantza honetan, berdin dio zein zenbateko duen.

Halaber, Arrasateko Udalaren Kontratazio Mahaia sortu dugu, iraunkorra, eta haren jarduera erregulatu dugu, hori guztia Administrazio Publikoetako Kontratuen Legearen Testu Bategina onartzen duen ekainaren 16ko 2/2000 Legegintzako Errege Dekretuaren 81. artikulua aplikatzearen ondorioz, izan ere, ezartzen du Kontratazio Mahai bat eratu behar dela kontratazio organoan parte hartzeko, prozedura irekian edo mugatuan kontratuak adjudikatzeko. Mahai horrek ere eskumena izango du prozedura negoziatuetako kontratazio organoa aholkatzeko, nahiz eta hura eratzea, kasu honetan, nahibadakoa izan. Mahaiaren osaera erabaki dugu Administrazio Publikoetako Kontratuen Legearen Testu Bateginaren Bederatzigarren Xedapen Gehigarriaren arabera.

Hemen jasotzen diren arauak garatzen dute indarrean dagoen araudia, administrazio kontrataziooko gaitan, eta horrek aukera ematen du prozedurak erabiltzeko, eta prozedurok ekarriko dute kontratazio publikoaren erabilera egokia egitea, izan ere, hori beharrezkoa da udal jardueraren funtzionamendu egokia izateko.

I. TITULUA
IZAERA OROKORREKO XEDAPENAK

1. Artikulua. Helburua.

1.- Ordenantza honen helburuak dira:

a) Kontratazio dossierren tramitazio uniformea lortzea, sortu ez dadin ahal dela kontrolik gabeko egoerarik edo segurtasun juridikoaren gabeziaren egoerarik.



Código exp: 2005RBAR0005

Asunto: Ordenanza reguladora de los procedimientos de contratación

b) Eraginkortasun handiagoa lortzea Udalaren jardunean, administrazio kontratazioa arautzen duen oraingo legeriak ematen dituen bideak erabiliz, kontratazio eremuan.

2.- Helburu horiek lortzeko, Ordenantza honek ezartzen du hainbat prozedura arau, eta arautuko dituzte Arrasateko Udalak egiten dituen obra, zerbitzu publikoen kudeaketa, hornidurak, kontsultoretza eta asistentzia eta zerbitzuen administrazio kontratuak, Administrazio Publikoetako Kontratuen Legearen Testu Bategina onartzen duen ekainaren 16ko 2/2000 Legegintzako Errege Dekretuan datozen prozeduren eta adjudikazio moduen bidez.

2. Artikulua: aplikazio eremua.

1.- Ordenantza hau aplikatuko zaie Arrasateko Udalean, eta izaera nahibadakoaz, erakunde autonomoetan egiten diren kontratazio prozedura arrunt guztiei, obra, zerbitzu publikoen kudeaketa, hornidurak, kontsultoretza eta asistentzia eta zerbitzuenak.

3. Artikulua: Kontratazeko organo eskudunak.

Kontratazeko eskuduntza zehaztuko du toki erregimeneko gaietan indarrean dagoen legerian xedatutakoak, baina legez eskudunak diren udal organoek akordioak edo erabakiak hartu ditzakete eskumenak lagatzeko beste udal organo batzuei.

Kontratu txikietan izan ezik, kontratazio organoak adjudikazio erabakiak hartuko ditu Kontratazio Mahaiaren aholkua jaso eta gero.

4. Artikulua: Kontratazio Unitatea.

Egiteko hauek dagozkio Kontratazio Unitateari:

a) Enkantez, lehiaketaz edo prozedura negoziatuaren bidez egindako kontratazio prozeduren administrazio kudeaketa; eta hauek hartuko ditu:

- Klausula Ekonomiko-administratiboen Agiriak egitea.
- Lizitazioak kudeatzea: iragarkiak bidaltzea, eskaintzak jasotzea, kontratazio mahaiaren deialdiak eta aktak egitea, kontratuak sinatzea, fidantzak jarri eta itzultzea, kontratuak aldatzea, prezioak berraztertzea, luzapenak, mugaegunak, errekurtsioak izapidetzea.
- Kontratazio mahaiaren idazkaritza lanak egitea.
- Laguntzea sailei preskripzio teknikoek agiriak prestatzeko izapideetan, eta jasotako eskaintzak baloratzeko txostena egiten ere bai.
- Kontrolatzea sailek egin beharreko izapideak bete diren edo ez.

b) Agirien eta prozeduren ereduak egitea, bai eta Udal osoarentzako jarduera irizpideak ezartzea ere.

c) Erosketa zentralizatutzat jotako ondasunen kontratazioa, hala nola, bulegoko materiala, altzariak, telefonia zerbitzuak eta beste ondasun batzuk.



Código exp: 2005RBAR0005

Asunto: Ordenanza reguladora de los procedimientos de contratación

5. Artikulua: saileko buruaren egitekoak.

Udaleko sailetako buruen ardura izango da sailak sustatutako kontratazio dosierrak bultzatu eta izapidetzea. Bereziki hauek izango dira saileko buruaren betebeharrak:

a) Txostenak eta aurretik egin behar diren izapideak egitea, horien arabera egin nahi diren kontratazioak sustatzeko. Edozelan ere, hartarako nahikoa izango da saileko buruak ematea oniritzia zerbitzuko buruek edo teknikari eskudunek sinatzen dituzten txostenei.

b) Enkante, lehiaketa edo prozedura negoziatuetan, lizitazioa arautu behar duten preskripzio teknikoan Agiriak egitea, bai eta Klausula Ekonomiko-administratiboen Agirietan sartzeko egokitzat jotako proposamenak egitea ere (lizitazio mota, baloratzeko irizpideak,...).

c) Kontraturik onena lortzeko behar diren gestioak egitea, bai eta lizitazioetan aurkeztu diren eskaintzak baloratzeko txosten teknikoak egitea ere. Edozelan ere, hartarako nahikoa izango da saileko buruak ematea oniritzia zerbitzuko buruek edo teknikari eskudunek sinatzen dituzten txostenei.

d) Ez baimentzea kontratua gauzatzen hastea, xedatutako prozedura bete den edo ez egiaztatu barik, bereziki, beharrezkoa denean kontratua sinatzea.

e) Bere saileko eremuan egindako kontratuen jarraipena egitea eta horiek gauzatu diren kontrolatzea, epe, kalitate, prezio eta abarri buruz. Hori egiteko, hala badagokio, hasiko da izapidetzen berraztertu, aldatu, eseki, gelditu egin behar diren dosierrak, eta informazioa emango du, organo eskudunak onartu baino lehen, sinatutako kontratuei buruz egiten diren fakturen eta ziurtagirien gainean.

f) Kontratuen likidazioak onartzeko behar diren txosten teknikoak egitea, lizitatzailleek jarritako bermeak itzultzea izapidetzeko.

g) Kontratazio organoak eskatzen dizkion txostenak egitea, kontratuei, haiek betearazteari eta izan litezkeen gorabeherei dagokienez.

II. TITULUA

DOSIERRAK IZAPIDETZEA ETA KONTRATUAK ADJUDIKATZEKO MODUAK

6. Artikulua: dosierrak izapidetzea.

1.- Ordenantza honetako 8. artikuluan datozen kontratuak izan ezik, kontratu txikitzat joko direnak eta izapidetuko direnak oso-osorik sail bakoitzean, gainerako kontratuak izapidetuko dira prozedura negoziatu bidez edota lehiaketa eta enkante bidez, prozedura irekietan edo mugatuetan, Administrazio Publikoetako Kontratuen Legearen Testu Bateginean aurreikusitakoaren arabera.



Código exp: 2005RBAR0005

Asunto: Ordenanza reguladora de los procedimientos de contratación

2.- Horiek izapidetuko dira era konpartituan kontratuaren sustatzaile diren sailen edo zerbitzuen artean eta Kontratazio Unitatearen artean, Ordenantza honetako 4. eta 5. artikuluetan bakoitzari emandako egitekoen arabera.

3.- Dosierrok izapidetzeko, ahalmena ematen diogu alkateari, prozedura eskuliburua eta haren iritziz izaera osagarria duten agiri normalizatuak onartu, aldatu edo derogatzeko, betiere ordenantza honetan ezarritako printzipioen barruan.

7. Artikulua: Kontratista aukeratzea.

1.- Kontratu txikiak adjudikatuko ditu libreki kontratazio organoak, eta ez du eskatuko Ordenantza honetako 9. artikuluan ezarritako formaltasunak baino gehiago.

2.- Prozedura negoziatuetan kontratua adjudikatuko zaio Administrazioak arrazoiturik aukeratutako enpresariari, eskaintzak eskatu eta gero, gutxienez, hura egiteko gaitasuna duten hiru enpresari, ahal den guztietan, eta aukeratzeko den horrekin prezioa ezarriko da eta jasota geratuko da dossierrean egindako guztia.

3.- Enkanteak arituko dira dirutan adierazitako oinarri bati buruz, eta adjudikatuko diote oinarri horretatik gora egin ez eta preziorik merkeena eskaintzen duen lizitatzailleari.

Bestalde, lehiaketetan, adjudikatuko zaio, oro har, proposamenik onuragarriena egiten duen lizitatzailleari, kontuan izanik agiritan ezarri diren balorazio irizpideak, erantzun barik bakarrik haren prezioari eta kontuan izanik Administrazioak eskubidea duela hura adjudikatu barik deklaratzeko.

III. TITULUA PROZEDURA ARAUAK.

I. Kapituluak: Kontratu txikia

8. Artikulua: aplikazio kasuak.

Izapidetuko dira kontratu txiki moduan 30.050,61 euro baino zenbateko txikiagoa duten obren kontratuak, bai eta 12.020,24 eurotik beherako hornidura, kontsultoretza eta asistentzia eta zerbitzuen zenbatekoen kontratuak ere.

Zenbateko horiek aldatu egingo dira, administrazio kontratazioko gaietan aplikatzekoa den legeriak aldatzen baditu muga horiek.

9. Artikulua: dosierra izapidetzea.

1.- Kontratu txikietan dosierra izapidetzeak eskatuko du:

- ✓ Aurrekontua edo proiektua, obra kontratuak direnean.
- ✓ Gastua onartzea, udal aurrekontuak betetzeko arauetan ezarritakoaren arabera.

2.- Bestalde, 6.000 eurotik gorako zenbatekoetako kontratu txikietan dosierra izapidetzeak eskatuko du:



Código exp: 2005RBAR0005

Asunto: Ordenanza reguladora de los procedimientos de contratación

- ✓ Kontratua egiteko beharra egiaztatzen duen txosten bat.
- ✓ Aurrekontua edo proiektua, obra kontratuak direnean.
- ✓ Udal kontu-hartzaileak gastua fiskalizatzea aurretik.
- ✓ 3 aurrekontu eskatzea, ahal den guztietan. Hala izan ezean, dosierrean jaso behar da gorabehera horren frogagiria.
- ✓ Eta adjudikazioaren erabakia, sustatzen duen saileko buruak proposatuta.

3.- Halaber, eskatu ahal izango da enpresek jarduteko ahalmenaren egiaztageria, bai eta kontratua sinatzeko ere administrazio agirian, beharrezko jotzen denean.

II. Kapituluak: Prozedura negoziatua.

10. Artikulua: aplikazio kasuak.

Prozedura negoziatu bidez izapidetuko dira kontratuak, Administrazio Publikoetako Kontratuen Legearen Testu Bateginean datorren zirkunstantziaren bat gertatzen denean, baina salbuetsiko dira kasu batzuk, zenbatekoa dela-eta egokia denean kontratu txiki moduan izapidetzea.

Edozelan ere, izapidetu ahal izango dira prozedura negoziatu bidez azken kontratu horiek, salbuespenezko zirkunstantziak, dosierrean behar bezala egiaztaturik, horrela gomendatzen dutenean.

11. Artikulua: dosierra izapidetzea.

Prozedura negoziatuen dosierrak izapidetzeko behar dira:

a) Kontratu motaren arabera, obra proiektua idaztea (eta zuinketa akta eta haren lursailen erabilgarritasunaren akta), zerbitzu publikoa ustiatzeko aurreproiektua, erosteko proposamenaren txostena edo kontratuaren beharra frogatzen duen txostena, kontsultoretza eta asistentzia eta zerbitzuen kontratuetan.

b) Baldintza Ekonomiko-Administratiboen Agiria idaztea eta, hala badagokio, Baldintza Teknikoen Agiria.

Baldintza Ekonomiko-Administratiboen Agirian zehaztuko dira enpresekin negoziatu behar diren aspektu ekonomiko eta teknikoak.

Zehaztu behar da ere egokia den edo ez prezioak berraztertzea. Lehenengo kasuan, zehaztu behar da prezioa aztertzeko zein formula edo indize ofizial erabiliko den, legean aurreikusitako mugekin. Egokia ez bada, erabakia jasota geratu behar da arrazoiturik.

c) Kontu-hartzailearen txostena.

Kontu-hartzaileari dagokio alde aurretik fiskalizatzea administrazio egintzak, kontratuei dagokienez, aurrekontuko arauetan aurreikusitako terminoetan.



Código exp: 2005RBAR0005

Asunto: Ordenanza reguladora de los procedimientos de contratación

d) Dosierria onartu eta adjudikazio prozedura hasteko akordioa edo erabakia hartzea kontratazio organoak, gaiaren arabera eskuduna den batzordeburuak proposatuta, hala badagokio, hark diktamena egin eta gero.

Akordioak edo erabakiak xedatuko du:

- obra kontratuetan Proiektua onartzea
- Baldintza Ekonomiko-Administratiboen Agiria onartzea eta, hala badagokio, Baldintza Teknikoen Agiria.
- gastua onartzea eta
- kontratatzekeo prozedura negoziatua deitzea.

Halaber, jaso behar da ez dela egokia prezioak berraztertzea, Baldintza Ekonomiko-Administratiboen Agirian hala zehaztu denean.

e) Lizitazioa argitaratzea, zenbatekoa dela-eta nahitaezkoa denean.

f) Eskatzea eskaintzak kontratuaren helburua egiteko gai diren enpresei, kopurua 3tik beherakoa izan barik, betiere ahal bada.

g) Proposamenak aurkeztea.

Orokortasunez udaletxeko erregistro orokorrean aurkeztuko dituzte. Ondorio horietarako, komunikazio bat bidaliko du kontratazio unitateak Erregistrora, eta komunikazioan zehaztuko dute zein egunetan bukatuko den eskaintzak jasotzeko epea. Erregistratu eta gero, Kontratazio Unitatera bidaliko dituzte eskaintzak.

Eskaintzak aurkezteko epean dosierria egongo da kontratua sustatzen duen sailean, interesa duten guztiek kontsultatzeko, baina eskaintzak aurkezteko epea bukatutakoan, dosier hori bidaliko dute Kontratazio Unitatera, eta handik izapideak bultzatuko dituzte, eskaintzak irekitzeko eta kontratista aukeratzeko.

g) Proposamenak irekitzea eta Kontratazio Mahaiak adjudikazioa proposatzea, V. Tituluan jasota dauden zehaztasunen arabera.

h) Kontratua adjudikatzeko erabakia edo akordioa.

i) Jakinaraztea lizitatzaille guztiei adjudikazio akordioa edo erabakia.

j) Kontratua sinatzea

III. Kapituluak: Lehiaketak eta enkanteak.

12. Artikulua: aplikazio kasuak.

Lehiaketaz edo enkantez adjudikatuko dira, prozedura irekian edo mugatuan, zenbatekoa dela-eta kontratu txiki adjudikatu ezin diren kontratuak eta betiere prozedura negoziatua aplikatzeko kasuetako bat ere biltzen ez bada.



Código exp: 2005RBAR0005

Asunto: Ordenanza reguladora de los procedimientos de contratación

13. Artikulua: adjudikatzeko modua aukeratzea.

Kontratuak adjudikatu ahal izango dira:

a) Obra kontratuetan, enkantez edo lehiaketaz.

Lehiaketaz adjudikatuko dira enpresaria aukeratzean prezio merkeeneko eskaintzari bakarrik begiratuta egiten ez diren kontratuak, eta, bereziki, kasu hauetan:

- 1.- Administrazioak alde aurretik proiektuak edo aurrekontua ezartzerik izan ez dituenean eta lizitatzailerik horiek aurkeztu behar dituztenean kontratuetan.
- 2.- Kontratazio organoak irizten dionean Administrazioak onartutako prestazioaren definizioa dela hobetzeko modukoa beste soluzio tekniko batzuekin edo exekuzio epean murrizketekin, lizitatzailerik proposatu beharrekoak.
- 3.- Horiek egiteko Administrazioak materialak edo bitartekoak ematen dituenean, kontratisten aldetik berme bereziak behar direnean horiek egoki erabiltzeko.
- 4.- Kontratuetan bereziki teknologia aurreratua erabili behar denean edo kontratuok gauzatzea bereziki konplexua denean.

b) Zerbitzu publikoak kudeatzeko kontratuetan, lehiaketaz.

c) Hornidurako kontratuak adjudikatuko dira jeneralean lehiaketaz, baina enkantea ere erabili ahal izango da zenbateko txikiko erosketetan, non-eta erosi beharreko produktuak ondo zehaztuta dauden, normalizaturik daudelako eta entrega epeak aldatzerik ez dagoelako, ezta kontratuan edozelako aldaketak sartzea ere; hortaz, prezioa da adjudikazioaren faktore erabakitzaile bakarra.

d) Kontsultoretza eta asistentziako kontratuak eta zerbitzuen kontratuak adjudikatuko dira normalean lehiaketaz. Enkantea erabili ahal izango da bakarrik zenbateko txikiko kontratuetan; horietan haien helburua egongo da behar den bezala zehazturik teknikoki eta ezin izango da sartu ezelako aldaketarik, eta prezioa da adjudikazioaren faktore erabakitzaile bakarra.

14. Artikulua: dosierra izapidetzea.

Lehiaketa eta/edo enkante bidezko adjudikazioak, izapidetzeko eta adjudikatzeko fasean, eskatuko du izapide hauek betetzeko:

a) Kontratu motaren arabera, obra proiektua idaztea (eta zuinketa akta eta haren lursailen erabilgarritasunaren akta), zerbitzu publikoa ustiatzeko aurreproiektua, erosteko proposamenaren txostena edo kontratuaren beharra frogatzen duen txostena, kontsultoretza eta asistentzia eta zerbitzuen kontratuetan.

b) Baldintza Ekonomiko-Administratiboen Agiria idaztea eta, hala badagokio, Baldintza Teknikoen Agiria.

Lehiaketak direnean zehaztu behar da Baldintza Ekonomiko-Administratiboen Agirian zeintzuk diren balorazio irizpideak, horien arabera adjudikatuko da-eta kontratua.



Código exp: 2005RBAR0005

Asunto: Ordenanza reguladora de los procedimientos de contratación

Zehaztu behar dira ere egokia den edo ez prezioak berraztertzea. Lehenengo kasuan, zehaztu behar da formula edo indize ofiziala, eta horren arabera aztertuko da prezioa, legean aurreikusitako mugekin. Egokia ez bada, erabakia jasota geratu behar da arrazoiturik.

c) Kontu-hartzailearen txostenak.

Kontu-hartzaileari dagokio aldez aurretik fiskalizatzea administrazio egintzak, kontratuei dagokienez, aurrekontuko arauetan aurreikusitako terminoetan.

d) Dosierria onartu eta adjudikazio prozedura hasteko akordioa edo erabakia hartzea kontratazio organoak, gaiaren arabera eskuduna den batzordeburuak proposatuta, hala badagokio, hark diktamena egin eta gero.

Akordioak edo erabakiak xedatuko du:

- obra kontratuetan Proiektua onartzea
- Baldintza Ekonomiko-Administratiboen Agiria onartzea eta, hala badagokio, Baldintza Teknikoen Agiria.
- gastua onartzea eta
- Kontratatzeko lehiaketa edo enkantea deitzea.

Halaber, jaso behar da ez dela egokia prezioak berraztertzea, Baldintza Ekonomiko-Administratiboen Agirian hala zehaztu denean.

e) Lizitazioa argitaratzea.

f) Proposamenak aurkeztea.

Orokortasunez udaletxeko erregistro orokorrean aurkeztuko dituzte. Ondorio horietarako, komunikazio bat bidaliko du kontratazio unitateak Erregistrora, eta hor zehaztuko dute zein egunetan bukatuko den eskaintzak jasotzeko epea. Erregistratu eta gero, Kontratazio Unitatera bidaliko dituzte eskaintzak.

Eskaintzak aurkezteko epean dosierria egongo da kontratua sustatzen duen sailean, interesa duten guztiek kontsultatzeko, baina eskaintzak aurkezteko epea bukatutakoan, dossier hori bidaliko dute Kontratazio Unitatera, eta handik izapideak bultzatuko dituzte, eskaintzak irekitzeko eta kontratista aukeratzeko.

g) Proposamenak irekitzea eta Kontratazio Mahaiak adjudikazioa proposatzea, V. Tituluan jasota dauden zehaztasunen arabera.

h) Kontratua adjudikatzeko erabakia edo akordioa.

i) Jakinaraztea lizitatzailer guztiei adjudikazio akordioa edo erabakia.

j) Kontratua sinatzea

k) Adjudikazioa argitaratzea, legez ezarritako kasuetan.



Código exp: 2005RBAR0005

Asunto: Ordenanza reguladora de los procedimientos de contratación

V. TITULUA ARAU ESPEZIFIKOAK

15. Artikulua: Bermeak itzultzea

1.- Behin-behineko bermeak itzuliko zaizkie interesdunei adjudikazioa proposatu eta berehala, adjudikatzeko modua enkantea denean, edo adjudikatu ondoren, adjudikatzeko moduan denean lehiaketa edo prozedura negoziatua.

2.- Behin betiko bermea itzuliko zaio kontratuaren likidazioa onartu eta gero, gertatu ez da zer edo zer eta erantzukizunak erabili behar badira bermearen gainean eta, hala badagokio, igaro ez bada horien epea. Alkateak erabakiko du itzultzea, teknikari eskudunak txostena egin eta gero; txosten horretan egiaztatu behar da batetik, kontratua ondo eta egoki bete dutela eta, bestetik, egokia den edo ez hura itzultzea.

16. Artikulua: Prezioa ordaintzea

1.- Kontratu txikien adjudikazio erabakian edo Baldintza Ekonomiko-Administratiboen Agirian beste modu bat zehazten ez bada, kontratuen prezioa ordainduko da kontratuko lanak bukatutakoan, adjudikaziodunak dagokion faktura aurkeztutakoan eta gai honetan indarrean dagoen araudia bete eta gero.

2.- Prezioa ordainduko da 2 hileko epean, obra ziurtagiriak egiten diren egunetik edo kontratua osorik edo zati batean bete dutela egiaztatzen duten agiriak egiten diren egunetik. Edozelan ere, obra ziurtagiria egiten badu udalekoa ez den teknikari batek, epea hasiko da kontatzen ziurtagiria udaletxean sartu den egunetik, eta ondorio horretarako entregatu behar da Erregistro Orokorrean.

17. Artikulua: Komunikazioak.

Adjudikazio egintza izan ezik, lehiaketa, enkante edo prozedura negoziatuen prozeduretan gertatzen diren gainerako komunikazio eta errekerimendu guztiak honela egingo dira:

1. Ahoz komunikatzea interesdunari,
2. Adieraztea faxez edo posta elektronikoz, hartu izana adieraziz, eta
3. Iragarkia agertzea udaletxeko taulan.

V. TITULUA KONTRATAZIO MAHAIA

18. Artikulua: Osaera.

Kontratazio Mahaia, izaera teknikoduna eta berbera kontratu guztietarako, hauek osatuko dute:



Código exp: 2005RBAR0005

Asunto: Ordenanza reguladora de los procedimientos de contratación

- Mahaiburua: Alkate-udalburua edo berak delegatzen duen zinegotzia.
- Mahaikideak:
 - Udal idazkaria edo berak delegatzen duen funtzionarioa,
 - Udal kontu-hartzailea edo berak delegatzen duen funtzionarioa,
 - Kontratazioa sustatzen duen saileko burua edo berak delegatzen duen funtzionarioa.
- Idazkaria: Kontratazioko teknikaria edo berak delegatzen duen funtzionarioa

19. Artikulua: bileren araubidea.

1.- Mahaiak bilera arrunta egingo du, eta betiere jorratzeko gairik egonez gero, astero-astero, eta hor gaien zerrenda bat izango dute, aurreikusitako kontratazio jardun guztiakin.

2.- Bilera berezia egingo du, lizitatzeko prozedura bat egiteari dagokionez hala egin behar denean.

3.- Mahaia baliozkoa izateko, egon behar dute mahaiburuak, bi mahaikidek eta idazkariak.

4.- Kasu guztietan Kontratazio Mahaiaren funtzionamendua arautuko du orokortasunez Herri Administrazioen Araubide Juridikoaren eta Administrazio Prozedura Erkidearen 30/92 Legean datorrenak, kide anitzeko organoei dagokienez.

5.- Kontratazio Mahaiaren bileretara etorri ahal izango dira udalbatzako kideak, hitzarekin baina botorik gabe.

6.- Halaber, etorri ahal izango dira, hitzarekin baina botorik gabe, Mahaiak etortzeko eskatzen dieten udal teknikari arduradun guztiak, aholkularitza lanak egiteko.

20. Artikulua: funtzionamendua.

1.- Mahaia osatu eta gero, lehenik eta behin kalifikatuko ditu egintza pribatuan denboraz eta eraz aurkeztutako eskaintzen agiriak.

Agiriak kalifikatu eta gero, egintza deklaratu da irekia, egoki kalifikatutako proposamenak irekitzeko. Horren ostean, Mahaiak, era pribatuan, bidezkotzat jotzen duena eztabaidatuko du, adjudikazio proposamenak egiteko.

Egindako guztiari buruz akta egingo du, eta adjudikazio proposamenekin batera kontratazio organoari bidaliko dio.

2.- Adjudikazio proposamena egingo du, enkantea denean, preziorik merkeena eskaintzen duenaren alde, eta proposamen horrek ez du sortzen eskubiderik proposatutako enpresariaren alde.

Lehiaketa denean, adjudikazio proposamenak izan behar du klausula administratibo partikularren agirietan adierazitako irizpideen ponderazioa.

3.- Mahaiak eskatu ahal izango du beharrezkotzat jotzen dituen eta kontratuaren helburuarekin lotuta dauden txosten juridikoak eta teknikoak.



Código exp: 2005RBAR0005

Asunto: Ordenanza reguladora de los
procedimientos de contratación

4.- Mahaiaren proposamenak onartuko dira bilerara joandako kideen botoen gehiengo soilez, eta parra eginez gero, erabakiko du mahaiburuaren kalitateko botoak.

XEDAPEN IRAGANKORRA: Ordenantza hau behin betiko onartu baino lehen hasitako kontratazio dossierrek jarraituko dute izapidea, Baldintzen agirietan jasota datozen izapideen arabera, behin betiko adjudikatu arte.

LEHEN XEDAPEN GEHIGARRIA: Arrasateko Udalak, Kontratazio Unitateak hala proposatuta, onartuko ditu agirien ereduak eta prozeduren eskuliburuak, eta ezarriko ditu jarduera irizpide arruntak Udal osorako.